



Emakume bat atxilotu dute Iturmendin, terrorismoa goratzea leporatuta

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/02/2024

Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman zuten atzo, han deklaratzeko.

Atzo goizean 63 urteko emakume bat atxilotu eta inkomunikatu zuten Iturmendin(Nafarroa). Senideak jakinarazi dutenez telefono dei bat jaso zuen alabak, eta adierazi zieten haien ama atxilotu zutela. Hala ere, ez zieten eman bestelako informaziorik, ez nork egin zuen atxiloketa, ez zergatik eta ez non zegoen. Azkenean, arratsean, amak berak hamabost bat segundo iraun zuen telefono deia egin zien alabei, eta jakinarazi zien atxilotuta zegoela eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Madrilera eramango zutela. Antza denez, "terrorismoa goratzea" leporatzen diote eta baliteke atxiloketaren arrazoia sare sozialetan egindako iruzkinen bat izatea. Hala ere, senideek hori baieztatu gabe dute oraindik. Gaur arratsaldean jakinarazi dutenez, aske geratu da atxilotutako emakumea.

[twitter:twitturl:https://x.com/aske_eh/status/1754964902563684498?s=20]

<https://eh.lahaine.org/emakume-bat-atxilotu-dute-iturmendin>